

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko martxoaren 13an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERNANIKO HERRI MUSIKA ELKARTEA – HHME ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko azaroaren 24an, Hernaniko Herri Musika Elkartea HHMErekin hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2023ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31 artekoa, beste lau urtez luzagarria.

Hernaniko Udalak urtero 43.000 €-ko dirulaguntza emango dio Hernaniko Herri Musika Elkartea HHMEri, 2025eko aurrekontuan Dirulaguntza izendunen atalean jasotakoa: Partida: 1910.481.04.334.00/2025 Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran.

2024ko dirulaguntzaren zuriketa garaiz eta dagokion epean aurkeztu ditu memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen froga-agiriak.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko martxoaren 13ko bilkuran emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

- 2024ko dirulaguntza izendunaren zuriketa **onartu**.
- 2025erako **43.000 €-ko dirulaguntza izenduna** onartu eta lau zatitan ordainketa egin: otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran 1910.481.04.334.00/2025 partidatik.
- **1. ordainketa 10.750 €** egin.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko martxoaren 13an
Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikoaren bitartez

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: ESKUb8f1ddbd-013d-4281-ad6c-e7a95a104075

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>